

1/2021 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
OTSAILAREN 9an EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

BATZORDEKIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea
M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea
Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.
Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea
Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko burua
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakaria
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko lehendakaria
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea
Itziar Semberoiz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea
David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea

Ezin etorria adierazi dute:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea
Yolanda González García and., Vianako alkatea.

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Bi mila eta hogeita bateko otsailaren bederatzian, arratsaldeko bostetan, aldamenean adierazitakoak bildu dira era telematikoan Zoom aplikazioaren bidez, Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

- 1.- Aurreko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.
- 2.- Batzorde eta Kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
- 3.- Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkariak izendatzea.
- 4.- Langileen enplegu baldintzak.
- 5.- Hiri Eremuak Berreskuratzeko deialdiaren ebazpena.
- 6.- Correosekin izenpetutako hitzarmena luzatzea.
- 7.- Erabaki-proposamena Europako Next Generation Funtsen inguruan.
- 8.- Ehizari buruzko araudia aldatzea.
- 9.- Jokoari buruzko araudia aldatzea.
- 10.- Lehendakariaren informazioa.
- 11.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA- Azaroaren 17ko ohiko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

Inork ez du oharrik egin; horrenbestez,

ERABAKI DA:

2020ko azaroaren 17an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektoriale buruzko informazioa.

Honako Batzorde eta Kontseiluen berri eman dute:

- **Lanbide Heziketaren Nafarroako Kontseilua**, (2020/11/23). Lanbide heziketari buruz estatu mailako lege berri baten onespeneren berri eman zuten eta ikasturte honen matrikulazio datuak jakinarazi zituzten.
- **Nafarroako Turismo Kontseilua**, (2020/11/25). Ostatuak irekitzearekin eta sektore horrentzako dirulaguntzekin lotutako gaiak jorratu zituzten.
- **Nafarroako Bideozaintzarako Bermeen Batzordea**, (2020/11/26). Bideozaintzako kamerak baimentzeko zenbait eskaeren berri eman zuten eta udaltzaingoek gailu mugikorrak eraman ahal izateko aukeraren eta baldintzen berri ere eman zuten.
- **Nafarroako Estatistika Kontseilua**, (2020/11/27). 2021-2022 eperako estatistika plana azaldu zuten.
- **Nafarroako Babes Zibileko Batzordea**, (2020/12/01). Udalerrietan uholdeei dagokienean zer nolako lana egiten ari diren azaldu zuten. Zenbait udalerritan uholde-arriskuei aurre egiteko planak onetsi dira. Halaber, Nafarroako babes zibileko lurralde planaren berrikuspenaren berri eman zuten.
- **Landa garapenerako 2014-2020 programaren jarraipen batzordea**, (2020/12/11). Programaren baitako funtsen betetze-maila berrikusi zuten.
- **NILSAko Administrazio Kontseilua**, (2020/12/15). Sozietate honen jarduketa-programa eta aurrekontua eta esleitze publikoaren plana onetsi zituzten eta langile batzuen lan-kontratuak mugagabe bihurtzea erabaki zuten.
- **Garapen Lankidetzarako Nafarroako Kontseilua**, (2020/12/15). Nafarroako III. Plan Zuzentzailea Garapen Lankidetzarako.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea**, (2020/12/18). Egun baliogabeei buruzko Foru Dekretuaren eta kontu-hartzaile lanpostuen lekualdatzeen berri eman zuten.

- **Nafarroako Ongizatearen Kontseilua**, (2020/12/18). Gizarteratze alorreko aparteko dirulaguntzak arautzeko foru agindu berri baten ingurukoak jakinarazi zituzten eta desgaitasunaren, adinekoen, adin txikikoen eta migrazio politiken alorreko zenbait deialdiren berri eman zuten.
- **Nafarroako Desgaitasun Kontseilua**, (2020/12/18). Nafarroako Kontseiluaren aldeko txostena jaso ondoren, desgaitasuna dutenen eta adinekoen egoitzen baimentzeari buruzko dekretu berria indarrean jarriko dela adierazi zuten. Bestalde, herritarren zahartze aktiboaren alorreko deialdi baten berri eman zuten toki entitateei zuzendua. Gainera, desgaitasunaren plan batean lanean ari direla jakinarazi zuten eta plan horretan toki entitateek ere parte hartuko dutela.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua**, (2020/12/21). Informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruz aurkeztutako zenbait erreklamazio ebatzi ziren.
- **Miguel Induráin Fundazioaren Patronatua**, (2020/12/28). Jarduketan programa onetsi zuten.
- **Lurralde Mugaketako Batzordea**, (2021/01/18). Ollokiko Kontzejua eratzeko espedientearen inguruko txostena egin zuten eta atzeratu egin zen Basaburuako Aizarozko Kontzejua eratzearen inguruko txostena egitea.
- **Toki Prestakuntzarako Batzorde Paritarioa**, (2021/01/18). Toki enplegatuentzako trebakuntza planaren aurreikuspenen eta zenbatekoaren berri eman zuten.
- **Nafarroako Osasun Kontseilua**, (2021/01/19). Txertaketa aurreikuspenen eta estrategiaren berri eman zuten eta osasuneko gastuaren hazkundearen berri.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua**, (2021/02/01). Dagozkion erreklamazioak tramitatu ziren.
- **Nafarroako Ongizatearen Kontseilua**, (2021/02/05). Edadetuen programa globala azaldu zuten eta zenbait deialdiren onespeneren berri eman zuten bai eta gizarteratzeari buruzko planaren izapidetzearen berri.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA- Batzorde eta kontseilu sektorialetako ordezkariak izendatzea.

Lehendakariak bigarren ordezkari bat izendatzea proposatu du Nafarroako Kirol Jokoak Antolatzeko Batzorderako; egun, Tafallako udaleko kirol teknikaria dago toki entitateen ordezkari gisa batzorde horretan. Batzorde horretarako izendatu beharreko kidea teknikaria izan behar duenez, batzordean egoteko interesa duen kirol teknikari bat izendatzea proposatu du. Halaber, berriz ere abiatuko den NAPIren Gobernu Kontseilurako ordezkarien izendapena proposatu du.

ERABAKI DA:

Honako ordezkari hauen izendapena onestea:

- NAPIren Gobernu Kontseilua.
 - Kidea: Juan Carlos Castillo Ezpeleta, Azkoiengo alkatea eta NUKFren lehendakaria.
 - Ordezkoa: Fermín Cabasés Hita, NUKFko teknikaria.
- Nafarroako Kirol Jokoak antolatzeko batzordea.
 - Udal kirol teknikaria

4. PUNTUA.- Langileen enplegu baldintzak.

Lehendakariak bilkuraren deialdiarekin batera igorritako langileen enplegu baldintzen berri eman du. Nafarroako administrazioen langileen soldata igoera bera proposatu du Federazioaren langileentzat eta aurtengo lan-egutegiaren berri eman du lanegunak eta jaiegunak zehaztuz. Hala, uztailaren 7a jaiegun gisa mantenduko dela zehaztu du baina jaiegunekin parekatu ohi diren uztailaren 8a eta 9a berriz, langileek libreki erabakitzeko jaiegun gisa proposatu ditu.

ERABAKI DA:

NUKFko langileen enplegu baldintzak onestea akta honi erantsitako proposamenean adierazi bezala.

5. PUNTUA.- Hiri Eremuak Berreskuratzeko deialdiaren ebazpena.

Hiri Eremuak Berreskuratzeko deialdiaren ebazpen-proposamena azaldu dute. Deialdi hori "La Caixa" eta "Nafarroako Kutxa" fundazioekin sinatutako hitzarmen berriari jarraiki egin da. Berritasun gisa aurtengo deialdiaren zuzkidura handitu egin da; osotara, 115.000 eurokoa da.

Deialdia toki entitate guztiek parte hartu ahal izateko diseinatu da. Horrenbestez, norgehiagokako araubidean zehaztu da entitate bakoitzak jaso beharreko zenbatekoa; horretarako, esleitutako diru guztia eskatutako gehieneko dirulaguntza guztiekin zatituta ateratzen den portzentajea aplikatu da, %83,32 alegia. Proportzio hori eskatutako aurrekontu finantzarriari aplikatu zaio, edo 2.500 euroko zenbatekoari (gehienezkotzat jotzen den zenbatekoari). 65 eskaera aurkeztu dira.

ERABAKI DA:

Hiri Eremuak Berreskuratzeko 2020ko deialdiaren ebazpena onestea, akta honen eranskin modura doan txostenean jasotzen den moduan.

6. - Correosekin izenpetutako hitzarmena luzatzea.

Lehendakariak proposatu du Correosekin izenpetutako hitzarmena luzatzea. Hitza idazkari nagusiari eman dio, eta horrek hitzarmenaren nondik norakoak azaldu ditu eta adierazi du zergatik komeni den hitzarmena luzatzea; hitzarmenarekin bat egiten duten toki entitateak profitatu daitezzen hitzarmenak eskaintzen dituen deskontuez eta fakturazio baldintzez.

Gaia Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

ERABAKI DA:

Aipatu hitzarmenaren beste luzapen berezi bat eskatzea Sociedad Estatal de Correos y Telégrafos S.A entitateari, hitzarmenaren eranskinetan zehaztutako baldintzetan jarrai dezan posta eta telegrafia zerbitzuak ematen, 2021eko abenduaren 31ra arte, helburua izanik toki entitateek modua izatea kontratazio prozeduren esleipenak gauzatzeko, Posta Zerbitzuari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legeak indarra hartu ondoren, Europako zuzenbidetik eratorritako betebeharrarekin eta kontratazioari buruzko araudiarekin bat.

7. PUNTUA.- Erabaki-proposamena Europako Next Generation Funtzen inguruan.

Lehendakariak funts horien inguruan egin den erabaki-proposamena azaldu du. Proposamen hori Nafarroako Gobernuarekin batera lan-mahaian parte hartzen duten NUKFren ordezkarien ekimenez egin da eta idatziak toki entitateen ekonomia eta gizartea suspertzeko proposamenak, maiatzean Batzorde Betearazleak onetsiak, ditu oinarritzat. Aipatu erabaki-proposamenak batetik, azalpen-zati bat du non funts horietan sar daitezkeen eta sartu behar diren toki entitateen jarduketa-lerro guztiak biltzen dituen eta lerro horiek zehazteko prozedura zein metodologia zehazten duen. Halaber, funts horietan toki entitateak parte-hartzeko beharra jasotzen da testuaren zati horretan. Bestetik, idatziak zati xedatzaile bat du eta, bertan, jarduketa-lerroak onesteaz gain, Gobernuari eskatzen zaio jarduerak egin ditzan toki entitateen parte-hartzea bermatzeko, parte-hartze horren bideak zehazteko eta toki entitateei beharrezko laguntza eta aholkularitza eman diezaien “leihatil bakarra” deritzonaren bidez arreta eskainita.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei.

Toquero jaunak, Tuterako alkateak, goiz horretan Gobernuaren presidentearekin izandako bileraren inguruan adierazi du funtsei dagokienean ez dela gauza handirik zehaztu. Esan duenez, Eder Partzuergoak toki entitate guztien ekimenak bildu ditu eta hamazazpi proiektu aukeratu ditu jada. Biltzeko proposamena egin du zein ildotik lan egiten ari diren ikusteko.

Lehendakariak baiezkoa eman dio, informazioa bilduko dutela esanez baina Federazioaren erabaki-proposamena orokorragoa dela zehaztu du eta proiektu zehatzagoak barne hartu behar dituela.

Alvarez jauna, Castejongo alkatea, proposamenarekin ados agertu da oso landua eta osatua dagoela gehituta. Hala ere, funts horiek noiz eta nola iritsiko diren jakin nahi du. Libreki erabakitzeko tarte bat egon beharko litzatekeela irizten dio eta konpromisoak hartu beharko liratekeela funts horien onuradunak izan daitezkeen enpresak Nafarroan gera daitezen.

Horretaz gain, adierazi du proiektuak egiteko oinarriak eta betekizunak zeintzuk diren ahalik eta lasterren jakin beharra dagoela eta oso garrantzitsua dela proiektu horiek aurkezteko prozedurak eta izapideak arintzea, batez ere, entitate txikienen kasuan.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, digitalizazioarekin lotutako proiektuei helduta esan du, Nafarroako enpresa publikoa den heinean, Animsak ere baduela bere Next Generation plana prestaturik. Halaber, NUKFren eta udalen zeregina zein izango den argi gelditu behar dela adierazi du bai eta funtsen baldintzak eta kontrapartidak zeintzuk diren ere.

Lehendakari jaunak zehaztu du Federazio gisa entitatearen zeregina toki esparruko jarduketa-lerro guztiak adieraztea izan beharko litzatekeela eta lerro horietan toki entitateen parte-hartzea argitzeko eta bermatzeko eskatzea.

Mendo jaunak, Garesko alkateak, adierazi du, badakiela Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, funtsen kudeaketan gobernantza berma dezaten eskatzea beharrezkoa dela adierazi duela eta horretaz gain, aholkularitza zerbitzua eta leihatil bakarra eskatu dituela toki entitateek lantzen dituzten proiektuetarako.

Toquero jaunak, Tuterako alkateak, esan du irizpide objektiboak eta argiak ezarri beharra dagoela.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, adierazi du ez dagoela funts horien inguruko informazio askorik eta ez lukeela nahi toki entitateek haien artean lehiatu behar izatea. Horregatik, toki entitate guztientzako baldintza berdintasuna eskatu du.

Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita, gehiengoz,

ERABAKI DA:

Next Generation Europako funtsekin lotuta aurkeztutako erabaki-proposamena onestea eta idazkia Nafarroako Gobernuaren lehendakariari helaraztea. Erabaki-proposamena akta honi atxiki zaio.

8. PUNTUA.- Ehizari buruzko araudiaren aldaketa.

Lehendakariak jakinarazi du Federazioari gonbidapena luzatu diotela Parlamentuan Ehizari buruzko Foru Lege berria onesteko egiten ari diren lanetan parte hartzeko. Horretarako, Federazioak Parlamentuko batzorde batean agerraldia egitea aurreikusia du.

Agerraldi hori baino lehen, Federazioa ehiza barrutiak kudeatzen dituzten toki entitateekin bildu da horien ikuspuntua jasotzeko, zehazki, Tuter eta Cascanterekin bildu da. Bilera horretan, baliabideen eskasia, barrutia kudeatu ahal izateko entitateek beregain hartu beharreko gastuak, belaunaldien arteko erreleborik ez dagoela eta abar jorratu ziren.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, adierazi du aintzat hartu behar dela ehizaren egoera aldatu egiten dela herri batetik bestera. Hala, Iruñerrian adibidez, ehiza barrutiak kentzeko eskaera dagoela esan du.

Lehendakaria baiezkotan dago eta leku batetik bestera egoera ezberdindu behar dela adierazi du baina berriz ere esan du, askotan, ezjakintasun handia dagoela eta askok ez dutela argi ehiza barruti bat zer den eta duen zeregina, bereziki, animalien izurriak dauden tokietan ehiza-espeziak kontrolatzeko modua baita.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, ehiza defendatu du era jasangarrian arautua eta ehiza-espezieak kontrolatzeko ezinbesteko tresna gisa. Positibotzat jo du lan-mahaiak abiatzea nekazariak, ehiztarien elkarteak, Nafarroako Gobernua eta abar biltzeko eta bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak argi utzi ahal izateko. Adierazi du, halaber, komenigarria litzatekeela pertsonak armak erabili ahal izateko egin behar dituzten osasun-azterketak Nafarroako Osasun Zerbitzuak egitea.

Lehendakariak esan du iritzi horiek guztiak eta Federazioaren agerraldia baino lehen Batzorde Betearazlearen kideek igortzen dituztenak ere helaraziko dituela.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

9. PUNTUA.- Jokoari buruzko araudiaren aldaketa.

Lehendakariak, bestalde, jakinarazi du Federazioa gonbidatu dutela joko- eta apustu-etxeen inguruko parlamentuko batzorde txostengile batean parte hartzera.

Gai horri dagokionez, NUKFk egindako jarduerak azaldu ditu eta aipatu batzorde txostengilean horien berri emanen duela zehaztu. Ekarpinak egiteko aukera ere eman du lehendakariak.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, jakinarazi du Iruñean eztabaida juridiko baten ondoren, distantziak arautzea erabaki dutela mota horretako lokalak baimentzeko eta, horretarako, hiriko udal plana aldatu dutela.

Toquero jaunak, Tuterako alkateak, adierazi du Tuteran udal ordenantza baten bidez arautu dutela afera.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

10. PUNTUA.- Lehendakariaren informazioa.

Lehendakariak honako gai hauek aipatu ditu:

- Esteban Morrasen enpresarekin izandako bilera. Bertan, identifikazio digitalerako irtenbide teknologikoak aurkeztu zituzten, toki entitateentzat erabilgarriak izan daitezkeenak.
- Toki Administrazioaren Zuzendari Nagusiarekin izandako koordinazio bilerak. Bertan, hainbat gai jorratu dira; besteak beste, langile zehatz batzuei PCR proba egiteko beharra, krisiaren eboluzioari eta osasun murrizketei buruzko araudia (bereziki Gabonetarako), ez dagokiola 0-3 urtekoen tasetan konfinamenduagatik deskontuak egitea, Europako funtsak, administrazio elektronikoari buruzko lantaldea eta Toki Mapa Berrantolatze Foru Legearen finantzazioari eta aldaketari buruzko aurreikuspenak.

Europako funtsei dagokienean, informazio gehiago eta funtsen kudeaketan toki entitateen parte-hartzea aldarrikatu dituzte. Administrazio elektronikoari dagokionean berriz, Federazioari jakinarazi diote bi lantalde abiatuko direla; bata oso teknikoa eta bestea juridikoa eta Federazioak horietan parte hartuko duela.

Horretaz gain, bilera horietan, udal igerilekuak eta horiek Foru Dekretu berrira egokitu beharra hizpide izan dituzte. Igerilekuak egokitzeko epea berriro ere atzeratu egingen da 2025era arte.

- Poliziak koordinatzeko bilerak. Horietan, datu epidemiologikoen eta hartuko diren murrizketa neurrien berri ematen dute bai eta txertaketa aurreikuspenen berri ere. Neurriei eta horiek kontrolatzeari buruzko iritziak eta iradokizunak elkartrukutzen dira.
- Europako Funtsetarako Taldearen bilerak. Aurreikusitakoaren arabera, Estatu osoan, Toki Entitateek 1.700 eta 1.300 milioi euro jasoko dituzte. Laguntzak jasoko dituzten jarduketa-lerroak zeintzuk diren zehaztu zuten: Hiri-agenda, trantsizio ekologikoa eta digitalizazioa. Nafarroan hiru estrategiatan zehaztu dira lerro horiek: Itun berdea; gizartearen eta lurraldearen kohesioa; eta digitalizazioa. Federazioari jakinarazi zioten, aurreikusi dituzten proiektuak helaraziko dizkiotela toki entitateek faltan somatzen dutena proposa dezaten. Horretarako, lantalde horretan parte hartzen duten Federazioaren ordezkariak NUKFren teknikariekin barne bilera bat egin zuten eta beharrak jasoko dituen proposamen bat egitea adostu zuten Batzorde Betearazleak 2020ko maiatzeko saio berezian gizartea eta ekonomia suspertzeko onetsi zituen proposamenak oinarritzat harturik.
- María Solana parlamentariak eskatutako bilera 0-3 urtekoen zerbitzuari buruz lantalde bat sortzeko.

- Garapen Lankidetzarako Hirurteko Planaren barruan lankidetzaren proiektua hautatzeko egindako bilera.
- Kultur Teknikarien Elkartearen ordezkariarekin egindako bilera. Bertan, elkarlanerako hitzarmen bat sinatzeko proposatu zioten Federazioari.
- Animaliak Babesteari buruzko Foru Legearen lantaldearekin otsailaren 2an izandako bilera. Maila teknikoan ordenantza eredu bat lantzen jarraitzeko adostu zuten. Federazioa Etxauriko animaliak jasotzeko zentroarekin batera protokolo bat lantzen ari da animaliak jasotzeko eta beste bat jarduketa protokolo bat egiteko zehapen prozeduran koordinatzeko. Katuen koloniak arautzeko ere lanean ari dira. Lantaldean dauden ordezkariak maila politikoan bilera bat egitea pentsatu dute animaliak biltzeko irtenbideak proposatzeko eta laguntza ekonomikoa alkarrikatzeko.
- Nafarroako Gobernuarekin egindako bilera herritarren parte-hartzearen alorrean elkarlana zehazteko.
- FEMParen Lurralde Kontseilua. Bertan, Europako funtsen berri eman zioten Federazioari.
- Gizarte langileen talde batekin izandako bilera. Oinarrizko gizarte zerbitzuetako oinarrizko taldeen profiletara eta mailetara egokitzeko zailtasunen berri eman zioten Federazioari.
- NABIren zuzendari kudeatzailearekin izandako bilera elkarlanerako hitzarmen berri bat osatzen joateko.
- Idazkarien kolektibo batekin izandako bilera. Bertan, haien aldarrikapenak adierazi zizkieten Federazioari idazkari postuak betetzearekin lotuta.
- Eskubide Sozialetako Departamentuarekin egindako bilera ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelen araudi autonomikoa jorratzeko.
- Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren eta Enpresa Ereduaren Atalaren zuzendariarekin izandako bilera toki entitateetan ardura sozialari buruzko metodologia baten inguruan.
-
- Eskubide Sozialetako Kontseilariarekin eta arlo horretako Estatuko Idazkariarekin egindako bilera. Bertan, Europako funtsen finantzazio-lerroen berri eman zioten Federazioari eta toki entitateei egokitu dieten portzentajearen berri.
- Otsailaren 4an egoera epidemiologikoari buruz izandako Trantsiziorako Batzordea.
- Nafarroako Ehiza Federazioaren lehendakariarekin izandako bilera.
- Entzietan buruz egiten ari diren protokoloa.
- Europako proiektuetarako egindako zenbait babes-eskaera.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

11. PUNTUA- Galde-eskeak.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, tabernak ixtearekin lotuta eztabaidarik egon den galdetu du eta EAEn establezimendu horien barnealdea ixteko debekua ezeztatzen duen epaiari erreferentzia egin dio. Epai aztertzeko eskatu du irtenbide bat bilatu ahal izateko.

Toquero jaunak, Tuterako alkateak, esan du Tuteran nahiko presio handia dagoela gai horren inguruan.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, esan duenez epaiak dio aurkeztutako dokumentazioa ez dela itxiera justifikatzeko nahikoa.

Lehendakariak adierazi du Nafarroan tabernekin lotuta onetsitako neurriak Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenaren lehendakariaren bermea dutela.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, proposatu du NUKFk irizpideak ezar ditzan ordutegien inguruan, terrazen gehieneko okupazioari dagokionean eta abar.

Arrizubieta jaunak, Tafallako alkateak, energia enpresen okupazio tasaren inguruan galdetu du. Enpresa batek halako tasa jartzearen inguruko aholkularitza eskaini diela.

Lehendakariak esan du NUKFk gaia aztertuko duela. Maya jaunak, Iruñeko alkateak, telefono finkoari buruz Iruñeko Udalak jasotako aldeko epai baten berri eman du eta udalaren elkarlana eskaini du NUKFk behar duen guztirako.

Mendo jaunak, Garesko alkateak, entzierroen protokoloaren inguruan galdetu du. Lehendakariak azaldu duenez, protokolo bat prestatzeko lanetan aritu dira baina, bere ustez, bertan ezarritako neurriak betetzen oso zailak dira.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZren) konpentsazioa nola egingen den argitzeko eskatu du eta energiaren eta telefonoaren garraio-tasak aztertzea lehentasunezkoa dela uste du. Entzierroen inguruan uste du ez direla bideragarriak.

Larraza jaunak, Irurtzongo alkateak, hitza eskatu du baina arazo teknikoengatik ezin zaionez entzun, esan nahi duena idatziz bidaliko duela adierazi du. Hain zuzen ere, musika eskoletan irakasleak kontratatzearekin lotutako aferak azaldu ditu. Esan duenez, sarritan musika eskoletako irakasleak bi udaletan kontraturik egoten dira bestela ezin baitute ganorazko lanaldi bat eduki. Azaldu duenez, orain arte egoera hori ez zen zalantzan jartzen baina ziur dago orain Hezkuntza Departamentuak bateraezintasun espedienteak irekitzen ari dituela kasu horietan. Uste du gaia aztertu beharko litzatekeela eta langileen bateraezintasunen araudian salbuespen bat sar litekeela halako kasuetarako.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.